

Proiektuaren izena: Blu

Taldeakideak: Irati, Leire, Libe eta Olatz

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

BLU

Libe, Irati, Leire eta Olatz izeneko motibazio handiko lau ekintzaile gazte gara. Ingurumena eta gizartearen garapen jasangarri batek arduratzen gaituenez, gure ideia proiektua batez ere ekintzailetza sozialean oinarrituta dago.

Blu izeneko jatetxearen proiektua eramango dugu aurrera. Janari lasterra sukaldatuko da bertan. Baina plus bat gehitu diogu; gure bezeroei janari osasuntsu eta zapoetsua eskainiko diegu prezio onean eta baita "take away" formatua aukeran egogo da. Gainera, gure lehengaietaz hornitzeko orduan, kilometro 0 programa erabiliko dugu. Hau da, barazetik mahaira, tokiko produktu fresko, ekologiko eta garaikoak eramango ditugu. Horrela, tokiko kontsumoa sustatuko dugu eta aldi berean merkatari eta nekazarien bideragarritasun ekonomikoa handituko dugu. Proiektu honen helburua elikadura osasungarri, merkea, tokikoa eta garaikoa modu errazean denon eskura jartzea da. Zerbitzu oso eroso da, jendeak osasuntsu jateko aukera ematen du, aldi berean hauek beraien denbora aurreztuz.

Menuaren barruan, gosariak, bazkariak, meriendak eta afariak eskainiko ditugu. Baita, laktosaren intolerantiza, gluten gabeko janaria eta bukatzeko, menu begano eta begetarianoa eskainiko ditugu ere. Produktuak osasuntsuak eta freskoak izango dira.

Packaging-a garrantzitsua izango da baita ere, birziklatutako kartoia erabiliko dugu. Jendeak osasuna eta aldi berean ingurumena zaintzeko aukera izan dezan gure zerbitzua eskaini nahi diegu.

4 bazkide parte hartuko dugu proiektuan, Irati enpresaren harreman publikoen eta honen diseinuaren arduraduna izango da. Enpresa ezagutzen ematen arduratuko da kanal ezberdinen bidez. Leire koordinatzailea izango da eta taldea zuzenduko du. Libe finantza eta kontabilitate arloa eramango du enpresaren gastu eta sarrerak kontrolatzeko; eta azkenik Olatz enpresaren horniduraz arduratuko da.


Prezioak finkoak izango dira eta hasieran denda gutxi batzuekin (alokairuan hartu dugun lokal batekin) hasiko gara, baina denborarekin arrakasta edukitzea espero dugu eta horrela gure enpresa hedatzen hasi eta atzerriko merkatuetan zabaldu. Prezioak ez dira altuak izango eta lehengaiak kalitatezko izango dira. Proiektu hau edozein adin eta sexuko pertsonentzat zuzenduta dago, baina gehien bat osasuna zaindu nahi duten pertsonentzat eta sukaldatzeko denbora edo gogo askorik ez dutenentzat.

Proiektuaren izena: Blu

Taldekideak: Irati, Leire, Libe eta Olatz

Bezeroak lortu eta mantentzeko, marketing ekintzetaz baliatuko gara.

Gure lokaletan, apaindutako horma bat prestatuko dugu bezeroak argazki politak atera ahal izateko eta horrela sare sozialetan partekatzeko. Modu honetan gure proiektua ezagutzera eman eta bezero gehiago erakartzea da helburua.



BLU

Acai Bowl	10,90 €
Cookie	2,20 €
Bizcocho	2,90 €
BIO donut	1,90 €
Chunk Oatmeal	2,60 €
Brownie	2,40 €
Smoothies (chocolate, strawberry)	3,30 €
ice creams	2,90 €

